



MUSIKA

Amazon ez, postaria bai!



KONPOST KONPOST

ERRAIA

IKER BARANDIARAN

Aze ganberro kuadrilla!" eta "Nola arraio batu dira?", pentsatuko zuten askok –nik bai, behintzat– proiektu honen berri izan zutenean. Denborak gauza asko zapaltzen ditu, bada birziklatzen direnak eta birziklatu ezinak edo ezkutuan gelditzen direnak. Garai arraroak bizi ditugu –dixosozko COVID-19aren aurretik ere– eta ezer ez da lehen zena: itxurakeria larregi dago, etiketa asko, dena da sofistikatua, edukiontzia erretzen direlako larritzen gara, ezer ez da muturrekoa, inork ez ditu postalak idazten, gazte askok er-zain izan nahi dute eta inork ez du postrearen aurretik hanka egiten. Halako egoeraren aurrean bada olatua jarraitzeko tentazioa, edo bestela, hondarretako kantinan gelditzekoa. Bada, hara!

Barraren alboan egin ei zuten topo lau biziraule hauek.

Postdemia honetan, azkenean, diskoa grabatu du Gasteizko laukoteak eta ausardiaz plazaratu –haiek ezagututa, zelan bestela?–. Zakur zaharrak dira, bakoitza bere amarena, baina zerk batu ditu? Seguruenik paso egiten dutela nostalgiaz, modernitateaz eta 'egin beharrekoaz'.

Joseba Baleztenak ondu, grabatu eta ekoiztu du esku artean zutena eta sorpresa hartu dut. Artifiziorik gabe, sinesgarritasunez, ustez gutxirekin ñabardura ederrak aterata, hausnarketaren bidez eta ironiaz harrapatzen dute entzulea: *The last human on earth*-ek badu Fiachras-en lehen diskoa erditu zuteneko traza. *Emak bakia* jazzero-ganbe-

rro-artu-herrikoa da aldi berean eta groove itsaskorra dauka. *Shoot*-ek, aldiz, badu Anariren kadentzia eta Tom Waits Gasteizen galdu zeneko garratasun fina. *Sin plomo 72 litro* hartu eta Almeriatik bueltan News Orleansetik pasako gara Txuma etnikoena eta Tom blues-eroa auto-stopean hartzeko. *Karan karan karan* edozein egunetarako instrumentalki dotore-dotore jantzia dago. *Asteleheneko pilula*-k intrigatik giro jamaikarrera jotzen du. *Zurrunbiloan zamalka* oso berezia eta aberatsa da: urbanoa, gauekoa, misteriotsua, garage-noisy karga dotorekoa. *Espuela* Lou Reeden zein Stones-en zama daukan rock-and-rolla. Bukatzeko, *Gasteiz rules* funky, boogaloo, eta batez ere, biribilguneen hiriari merezitako trufa. ●